



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

FUNTZIOAK

Helburua:

Elkargunearen helburua honakoa izango da: Donostiako Kongresu Jauregiko promozioa, kudeaketa eta eraikuntza, eraikuntzaren areto guztien merkatal ustiapena eta Auditorioan eta Kongresu Jauregian bidezkoak diren ekitaldiak gauzatzea.

Gainera, Elkargunearen helburu izango da ere: bere instalazioetan kultura-jarduerak sustatu, euskal kulturalaren berezko adierazpen eta agermenak proiektatu, eta euskal kulturaren irudi egokiagoa ezartzera lagundu. Guzti hau behean aipatzen denari esker:

- Donostiako eskaintza kulturala osatuko duen ekitaldi ezberdineko programa kulturala sortzen, Kursaal Elkarguneari eskaintzen dituen potentzialtasunak kontutan hartuta.
- Lurraldeko erakunde kultural ezberdinekin koordinatzen, gipuzkoar herritar guztien zerbitzura, kalitate handiko programazio globala, aberatsa eta ezberdina aurrera eramateko.
- Gipuzkoako, eta batez ere Donostiako irudia, nazional eta internazional mailan kultura bultzagile bezala indartzen.

Helburu soziala zuzenean edo zeharka garatu ahal izango da ere, beste elkarguneari akzio edo partaidetza jabetzaren bitartez edo beste pertsona fisiko eta juridiko, publiko edo pribatuekin izenpetutako itunen edo hitzarmenen bitartez.

Zeregina:

Centro Kursaal – Kursaal Elkargunea S.A. interes handiko ekitaldiak eta kalitate handiko jarduera kulturalak egiteko kongresu jauregia eta auditorioa da, eta ondorengo helburuak dituen tresna gisa erabiltzen da:

- Donostiaren eta Gipuzkoaren aberastasuna eta irudia indartzea, inguruari ekonomikoki eta ezagutza aldetik balio erantsia emango dioten pertsonak erakartzeko jarduerak sortuz.
- Bere baitan ekitaldiak hartzea eta sustatzea, hiritar guztien hurbilketa eta gozamina suspertuz.
- Pertsonak eta eraikin deigarria hartzen ditu oinarri, eta tartean dauden beste erakunde eta instituzio batzuekin lankidetzan aritzen da, betiere, enpresa eraginkortasunerako irizpideak eta gizarte erantzukizun korporatiboa erabiliz.



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ikuspegia:

Estatuan erreferentzia bihurtu den kongresu jauregia eta auditorioa da, bere kudeaketa bikaintasunagatik eta izaera berritzaileagatik. Bertako langileen garapen profesionalarekiko konpromisoa du, biltzarren merkatuko liderra da eta presentzia du nazioartean. Lurraldean sustatzaile kultural erreferentzia eta topagune aintzatetsia da. Gipuzkoako biztanleek bere ekarpen ekonomikoagatik, ezagutzaren ekonomiari ematen dion zerbitzuagatik eta gizartearekiko duen konpromisoagatik aintzatesten eta baloratzen dute elkargunea.

Balioak:

- Bezeroarenganako orientazioa.
- Berrikuntza.
- Eraginkortasuna.
- Taldeko lana.
- Berdintasuna.
- Lidergoa.
- Ingurumenarekiko errespetua
- Erantzukizuna.